

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0
positibo berri
2.313
positibo guztira*
*Hernanin 60 Astigarragan 20

NAFARROAN

18
positibo berri
8.942
positibo guztira
Sendatuak: 17.417 EAEn; 4.740 Naf.

Udalen finantziatorako Aldundiaren Foru Funtsa murrizteari buruzko mozioak, gaurko Plenoetan

Telematikoki bilduko dira gaur ere Plenoak, 19:00etan, Astigarragan eta Hernanin. EH Bilduk mozioak aurkeztu ditu bietan; Hernanin, EAJk ere bai. Gai gehienak koronabirusak aurrekontuetan izandako eraginaz ariko dira.

ASTIGARRAGA-HERNANI PLENOAK

Martxoan Koronabirusari aurre egiteko konfinamendu egoera ezarri zenetik, hirugarren Pleno telematikoa izango dute gaur Astigarragan, eta bigarrena, Hernanin. Biak, arratsaldeko 19:00etan egingo dira.

Gai gehienak, COVID-19 dela-eta, aurrekontuetan egin beharko diren aldaketen ingurukoak izango dira.

Kreditu aldaketak, Foru Funtsa eta Santa Ana eguna, Astigarragan

Hamalau puntuko gai-ordena dauka Astigarragan gaur bilduko den Plenoak. Hasteko, apirileko aktaren onarpena landuko da, eta ondorengo lau puntuetan, kreditu aldaketak landuko dira. Hurrengo lau puntuetan ere, gai ekonomikoak landuko dira: 2020ko zerga fiskalen aldaketari hasierako onarpena ematea, kirol instalazioen kudeaketarako emakida edo kontzesio kontratua aldatzea, horri lotuta COVID-19aren eraginez kontratuaren zati bat eteteak eragin duen kalteordaina, eta berriro ere, COVID-19a dela-eta, etxez etxeko zerbitzuaren kontratuaren zati bat eteteak eragin duen kalte ordaina.

Segidan, bi puntutan, udal osoko bilkuraren edo Plenoaren eskumenetako batzuk tokiko gobernu batzordearen esku uzteaz eta alkateak tokiko gobernu batzordearen esku utzitako eskumenen berri emango da.

Hamabigarren puntuan, berriaz, jaiak izango dituzte hizpide, baina 2021ekoak. Zehazki,

2021eko Santa Ana eguna, uztailaren 26a, herriko jai egun izendatzeko proposamena landuko da.

Bukatzeke, EH Bilduren mozioa landuko da. Gipuzkoako Foru Aldundiak udal finantziatorako foru funtsa murrizteko asmoaren iragarpenaren aurrean, mozioa aurkeztu du taldeak.

Azken puntuan, ohi bezala, galdera eta eskarietarako tarte irekiko da.


Giza baliabideetarako programa, aurrekontuak eta Foru Funtsearen inguruko bi mozio, Hernanin

Zortzi puntuko izango da Hernanin gaurko Plenoa. Hasteko, apirileko aktaren onarpena landuko da, eta segidan, hainbat dekretu landuko dira, 2020koak.

Horren ondoren, hirugarren puntuan, landuko da Udalak 2020-2025 aldirako prestatutako giza baliabideen Plan Estrategikoari dagokion puntu bat; hain zuzen, giza baliabideak arrazionalizatzeko programaren lehenengo fasea.

Laugarren puntuan, berriaz, COVID-19aren eraginez hainbat tasa aldatzeko proposamenak landuko dira. Batetik, ur eta saneamendu zerbitzuaren eta hondakinen bilteta zerbitzuaren tasak aldatzea, eta bestetik, 2020-2021 aldirako Udalak antolatutako ikastaroen tasen hobariak onartzeko proposamena.

Hurrengo puntuetan, aurrekontu orokorraren berri emango da. Batetik, kontu-hartzailearen txostenaren berri emango da, eta bestetik, 2020ko aurre-



Aurreko Plenoa ere telematikoki egin zuten Hernanin.



Telematikoki egingo den hirugarren Plenoa izango da Astigarragan.

kontuaren exekuzioari buruzko informazioa emango da, COVID-19ak izan duen eragin ekonomikoa zein den ikusi eta aurrekontuen egonkortasuna, kontrola, eta iraunkortasuna landu ahal izateko. Era berean,

aurrekontu aldaketarako dekretuen berri emango da.

Bukatzeke, sei eta zazpigarren puntuetan bi mozio aurkeztuko dira, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udaletara bideratzen duen foru funtsa murrizteko

egindako proposamenaren aurrean, Astigarragan bezala. EH Bildurena da bat, eta EAJ-PNV-rena bestea.

Ohi bezala, erregu eta galderetarako tartearekin emango zaio amaiera Plenoari. **K**

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

TILIN * TOLON
BELAR DENDA
TERAPIA NATURALAK
KONTSULTAK
943 55 56 94
Txirrila, 10 - HERNANI

Adarraga
Konfitegia
Pasteldegia
Maiatzaren 27an
irekiko ditugu ateak
Urbietan Etorbidea 7
943 55 09 10

Zorionak Bego!



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTZAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** **Gauzez:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

«Oinarrizko eskubideen aldeko borroka ezin da zentzugabetzat hartu»

Kontrakantxa

Gaztetxeak Patxi Ruiz presoari «elkartasuna adierazteko modu berriak erabiliko ditu» aurrerantzean, kontzentrazioen orde.

HERNANI KONTRAKANTXA

«Gaurko elkarretaratzearen ondoren ere, kaleak hartzen jarraitzeko deia egiten dugu», azaldu zuen atzo Kontrakantxa Gaztetxeak, Patxi Ruiz euskal preso politikoaren 15garren gose greba egunaren ondoren. Astebetez, egunero egin dituzte elkarretaratzeak Plazan, eta aurrerantzean, «elkartasuna adierazteko modu berriak» erabiliko dituzte.

«Borrokaldiarekin jarraitzen du, egindako aldarrikapenak defendatuz»

Azaldu dutenez, «COVID-19ak kartzeletan ezarri zuen areagotutako isolamenduaren eta kutsatzeko arriskuaren aurka, oinarrizko eskubideen aldeko borrokan hasi ziren hainbat preso Murtzia II espetxean. Protesta horiek egin eta horien buruzagi izateagatik mehatxatua izan zen Patxi Ruiz euskal preso politiko txantrearra. Mehatxu horien aurrean, jada 15 egunez luzatu den gose grebari ekin zion, aurreneko 12 egunak ezer edan gabe pasatuta».

Pasa den ostegunean ospitalera eraman zuten, eta sueroa eman zioten, «nahiz eta adiera-



Orain arte, arratsaldero egin dituzte elkarretaratzeak Plazan.

zi zuten, horretarako agindua Murtziako epaitegi batek eman zuen, eta ez Auzitegi Nazionalak, Patxi nahi bezala. Nahasmen horren ondoren, alta boluntarioa hartu eta espetxeko erizaindegian dago berrogeialdian. Borrokaldiarekin jarraitzen du, egindako aldarrikapenak defendatuz».

«Borrokak askatuko ditu»

Greba honekin, «Patxi zintzilik geratu diren hari-muturrak agerian utzi» dituela uste du Kontrakantxa Gaztetxeak. «Amnistiaren aldarria ez da garai zaharretako kontua. Are gehiago, amnistia, beharrezko prozesu politiko baten gisara ageri da preso politikorik gabeko herri baten bidean, eta, horretarako, ezinbestean elikatu beharko da iraultza prozesua. Borrokak eraman ditu kartzelara eta borrokak egin ditu preso politiko, baina une hauetan ere, borrokak askatuko ditu».

Hori horrela, presoaren ekimena babestu eta haren ondoan egoteko deia egin dute, «amnistiaren aldarriaren baitan bildu

beharreko indar ezberdinen metaketaren alde». Kontrakantxak adierazi du «Patxi duintasunaren eredu, borrokaren eredu» izaten ari dela. «Bada erotzat hartu duenik ere, haren borroka gutxiesteko, nahiz eta kartzela den etengabeko torturaren aurrean altxatzea lortu duen. Oinarrizko eskubideen aldeko borroka ezin da zentzugabetzat hartu, zapaltzaileen aurrean altxatzea beti izango da zilegi».

Julen Atxurak, buruko isuria

Bestalde, «preso guztiek etxean behar» dutela adierazteko, jakin berri duten gertaera baten berri ere eman dute: Julen Atxurra preso lekeitiarrak buruko isuria izan du, eta espetxeko erizaindegian dago, Puerton. 24 urte daramazki kartzelan.

Gertaera hauen aurrean, kaleetan eta espetxeetan elkartasuna adierazten ari dira hainbat herritar eta preso. «Preso bat daukan arma bakarrarekin ari da borrokan, bere bizitzarekin, eta ez dugu bakarrik utziko». **K**

Datu taulan, aldaketak

URUMEA KORONABIRUSA

Koronabirusak Urumeako herritarretan izan duen bilakaerari lotuta Kronikak egunero argitaratzen duen taulako datuak Osakidetzako eta Nafarroako Gobernuak txosten ofizialeetatik ateratzen dira. Gipuzkoan, azken egunetan ez da kasu positibo berririk izan, eta beraz, Hernanin denera 55 izan direla jaso da, baina, gaur, 60 badirela zehaztu da; azken egunetan Osakidetzak ez du datu hori eguneratu, baina azken txostenean orain artekoak 60 badirela dio, positibo berririk ez badago ere.

Loratu loturi buruz Kronika, Baipasan

KRONIKA IRRATIA

Kronikak Euskadi Irratiko Baipasa saioan hartuko du parte gaur, 17:30ak aldera, eta Brayan Altimasberes gonbidatu du, Loratuz lotu, transexual helduentzako Euskal Herriko aurreneko elkarteak kidea.

Android sistemari buruz, hitzaldia

URUMEA KZ GUNEA

*KZgunea*TIC YouTube kanalean, 18:00etatik 20:00etara. Androiden sekretuei buruzko hitzaldia emango da gaur zuzenean, gaztelaniaz.

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

†

ESKERTZA
Jose Luis Garcia Martinez
Orain egun gutxi hil zen
- Goian bego -
Emaztea: Pepi Etxabe; seme-alabak: Nerea eta Jesus, Iñigo eta Bakartxo; eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztioi eta baita elizkizunetara etorri zineten guztioi ere.
Hernanin, 2020ko maiatzaren 26an

IRAGARKI MERKEAK

Irakasle titulatuak lehen eta bigarren hezkuntzako klase partikularrak emateko prest. Online nahiz presentzialak. **Deitu: 943 12 41 28** (ez bagaude erantzungailuan utzi zure mezua)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

San Antonioetarako ideiak jasotzen, biharko bilera baino lehen

Jai Batzordea festetarako ideiak biltzen ari da, 'olakauzoelkarteak@gmail.com' helbidean edo auzo udaleko buzoian. Bihar bilera egingo da.

EREÑOTZU SAN ANTONIO JAIAK

Olak auzo elkarteak Jai Batzordeak jakinarazi du «bizi dugun egoera dela-eta», ezin izango direla aurtengo San Antonioak beti bezala ospatu. Baina beste modu batean ospatzeko antolatzen ari dira.

Ideiak biltzen

«Ez ditugu beti ezagutu ditugun jaiak izango, plazan eta fron-

toian ez gara elkartuko, baina ez genuke nahi San Antonio eguna oharkapean pasatzerik», azaldu du.

Hori horrela, auzotar guztiei egin die deia, izan ditza keten ideia eta proposamenak helarazteko, «beti ere, jende pilaketak saihestu behar direla kontuan izanik». Ideia horiek biltzeko, bi bide ireki dituzte. Batetik, auzo udaleko buzoian utzi daitezke proposamenak, eta

bestetik, email bidez bidali daitezke, olakauzoelkarteak@gmail.com helbidera idatzita.

Bilera bihar, telematikoki

Horrez gain, animatzen den guztiari irekitako bilera telematikoa antolatu da bihar, asteazkenarako. Bertan sartzeko, Jitsi plataforma erabili beharko da. Plataforma hori deskargatzen duenak 'ereñotzukultura' izenarekin egingo den bilerarekin egin beharko du bat.

Bilera hori, bihar, arratsaldeko 19:30etan hasita egingo da. Jasotako proposamenak aztertuko dira, besteak beste. **K**